FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

CIF / IFK: P3113600E

# OHIKO OSOKO BILKURA
# SESIÓN PLENARIA ORDINARIA

**Data/ Fecha: 2025-02-15**

**Lekua/ Lugar: Herriko Etxea/Casa Consistorial.**

**Deialdia/ Convocatoria: Ohikoa/Ordinaria.**

**Ordua/ Hora: 09:00**

BERTARATUAK/ ASISTEN:

- D. Jesus Juan Bertiz Goñi jn, Herriarengatik
- D. Lazaro Javier Erasun Echeverria jn, Herriarengatik
- Dª Yolanda Urroz Saldias and, Herriarengatik
- D. Jose Antonio Mindeguia Saldias jn, Herriarengatik

EZ BERTARATUAK/ NO ASISTEN:

ALKATEA (Bilkura buru)/ ALCALDE (Preside la sesión):

- D. Jon Telletxea Juanenea, Herriarengatik

Idazkaria/ Secretaria: Dña. Leire Iragorri Litago and.

| | |
|---|---|
| Plenoa 09:09tan hasten da.<br><br>**1.- AURREKO AKTAK ONARTZEA (2025-11-21)**<br><br>Akta ikusi da.<br><br>AHO BATEZ onartu da. | El pleno comienza a las 09:09.<br><br>**1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS ANTERIORES (21-11-2025)**<br><br>Visto el acta.<br><br>Se aprueba POR UNANIMIDAD. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| **2.- KALE-IZENDEGIA IZENDATZEA** | **2.- NOMBRAMIENTO DE CALLEJERO** |
| Ikusi da 2025ko urriaren 3ko akordioa. | Visto el acuerdo plenario de 3 de octubre de 2025. |
| **ERABAKI DA:** | **SE ACUERDA:** |
| 1.- Hasieran erabakitako izena aldatzea eta kaleak horrela izendatzea: Luzura karrika eta Arkamendi karrika. | 1.- Modificar el nombre inicial y definir nuevamente las siguientes calles: Luzura karrika y Arkamendi karrika. |
| 2.- Erabakia Katastroari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan. | 2.- Notificar el acuerdo a Catastro para su conocimiento y efectos oportunos. |
| **3.- BEINTZA-LABAIENEN LARRAZABAL-ITURZABALEN URA HARTZEKO ETA BIEDRATZEKO OBRAREN ESLEIPENA** | **3.- ADJUDICACIÓN DE LA OBRA DE CAPTACIÓN Y CONDUCCIONES DE AGUA EN LARRAZABAL-ITURZABAL EN EL TM. DE BEINTZA-LABAIEN Y ADJUDICACIÓN DE LA OBRA** |
| Mendikoak 2025eko urrian idatzitako proiektua ikusi da: “Proyecto para la captación y conducciones de agua en Larrazabal-Iturzabal en el T.M. de Beintza-Labaien, año 2025 (PIL 2026-2028)”. | Visto el proyecto redactado en octubre de 2025 por Mendikoa Proyectos Técnicos “Proyecto para la captación y conducciones de agua en Larrazabal-Iturzabal en el T.M. de Beintza-Labaien, año 2025 (PIL 2026-2028)”. |
| Ikusi da Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren azaroaren 17ko 452/2025 Ebazpena, Beintza-Labaiengo Udalari " Captación y conducciones de agua en Larrazabal Iturzabal" izeneko jarduerari hasiera emateko baimena ematen diona. | Vista la Resolución 452/2025, de 17 de noviembre, del Director General de Administración Local y Despoblación por la que se concede permiso de inicio al Ayuntamiento de Beintza-Labaien en relación con la actuación denominada “Captación y conducciones de agua en Larrazabal Iturzabal”. |
| Kontuhartzailearen txostena, 2025eko urriaren 13koa, eta txosten juridikoa, 2025eko urriaren 17koa, ikusi dira. | Vistos el informe de intervención de 13 de octubre de 2025 y el informe jurídico de 17 de octubre de 2025. |
| Zenbateko txikiko kontratuen araubidea aplikagarria dela eta emandako epe eta eran oferta bakarra aurkeztu da. | Visto que es aplicable el régimen de contratos de menor cuantía y que se ha presentado una única oferta en el plazo y forma otorgado. |
| **ERABAKI DA:** | **SE ACUERDA:** |
| 1.- Lanak **I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L. (IFK: B71143911) enpresari esleitzea, 35.093,00 euroko balioarekin,** | 1.- Adjudicar los trabajos a **I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L. (CIF B71143911) por valor de 35.093,00 euros, sin IVA.** |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| **BEZik gabe.** | |
| 2.- Esleipenaren eraginkortasuna eten egingo da honako arau hauen arabera: | 2.- La eficacia de la adjudicación quedará suspendida de acuerdo a las siguientes normas: |
| a) Esleipenaren jakinarazpena bidali eta 10 egun naturaleko epean, igorpena bitarteko elektronikoen bidez egiten bada. | a) Durante el plazo de 10 días naturales contados desde la fecha de remisión de la notificación de la adjudicación, si dicha remisión se hace a través de medios electrónicos. |
| b) Esleipenaren jakinarazpena bidali eta 15 egun naturaleko epean, igorpena bitarteko ez-elektronikoen bidez egiten bada. | b) Durante el plazo de 15 días naturales contados desde la fecha de remisión de la notificación de la adjudicación, si dicha remisión se produce por medios no electrónicos. |
| 3.- Kontratua administrazio-agiri batean formalizatuko da, esleipena eteteko epea amaitu eta 5 egun naturaleko epean. | 3.- El contrato se formalizará en documento administrativo en el plazo de 5 días naturales contados desde la terminación del plazo de suspensión de la adjudicación. |
| 4.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten. | 4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos. |
| **4.- 2/2025 AURREKONTU-ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO** | **4.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 2/2025, SI PROCEDE** |
| Idazkariak 2/2025 aurrekontu-aldaketaren berri eman du. | La secretaria informa sobre la modificación presupuestaria 2/2025. |
| Aparteko kreditua: | Crédito extraordinario: |
| - Haur-parkea berritzea: 37.000,00 euro. | - Renovación del parque infantil, 37.000,00 euros. |
| - Beintza eta Labayen garbitokien ibilbide osasungarri iraunkorra, 70.000,00 euro. | - Ruta saludable sostenible lavaderos Beintza y Labayen, 70.000,00 euros. |
| - Donamaria administrari ofizialaren transferentzia, 15.000,00 euro. | - Transferencia Oficial Administrativo Donamaria, 15.000,00 euros. |
| Kreditu-gehigarria: | Suplemento de crédito: |
| - Jaiak eta Malerreka Eguna, 5.000,00 euro. | - Fiestas y Malerreka Eguna, 5.000,00 euros. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| - Ehizarako postuak eta txabolak mantentzea, 3.000,00 euro.<br>- Baso-lanak: 4.000,00 euro.<br>- Aguazilen haborokina, 1.500.00 euro.<br>- Su-itzalgailuak mantentzea, 200,00 euro.<br>- Bulegoko materiala, 500,00 euro.<br>Diru-sarrera handiagoa:<br>- Lurralde-kontribuzioa, 7.000,00 euro.<br>- Montepiosentzako dirulaguntza, 7.000,00 euro.<br>- Bankuaren interesak, 1.500,00 euro.<br>- Baso-lotea: 80.000,00 euro.<br>Sarrera berria:<br>- Artxiborako dirulaguntza, 1.200,00 euro.<br>- Ibilbide osasungarri ziklagarria garbitegiak, 25.000,00 euro.<br>Gastu orokorren diruzaintzako gerakina: 14.500,00 euro.<br>**ERABAKI DA:**<br>1.- Hasierako onarpena ematea aurrekontua aldatzeko 2/2025 espedienteari.<br>2.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, aldez aurretik Udaleko iragarki-taulan iragarkia jarrita, nahi duenak espedientea azter dezan eta erreklamazioak egin ditzan.<br>3.- Ohartarazi behar da, jendaurrean dagoen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betikotzat joko dela. | - Mantenimiento puestos y chabolas caza, 3.000,00 euros.<br>- Trabajos forestales, 4.000,00 euros.<br>- Gratificación alguacil, 1.500.00 euros.<br>- Mantenimiento extintores, 200,00 euros.<br>- Material de oficina, 500,00 euros.<br>Mayor ingreso:<br>- Contribución territorial, 7.000,00 euros.<br>- Subvención Montepios, 7.000,00 euros.<br>- Intereses banco, 1.500,00 euros.<br>-Lote forestal, 80.000,00 euros.<br>Nuevo ingreso:<br>- Subvención archivo, 1.200,00 euros.<br>- Ruta saludable ciclable lavaderos, 25.000,00 euros.<br>Remanente tesoreria gastos generales: 14.500,00 euros.<br>**SE ACUERDA:**<br>1.- Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria nº 2/2025.<br>2.- Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el tablón de anuncios municipal, a fin de quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones.<br>3.- Advertir que, si en el periodo de exposición no se formularan reclamaciones el acuerdo se entenderá definitiva. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| **5.- 2026KO AURREKONTU ETA EXEKUZIO-OINARRIEN HASIERAKO ONARPENA** | **5.- APROBACIÓN INICIAL DE LAS BASES DE EJECUCIÓN Y DEL PRESUPUESTO DE 2026** |
| Idazkariak exekuzio-oinarrien berri eman du eta 2026ko aurrekontua azaldu du. | La secretaria informa sobre las bases de ejecucción y explica el presupuesto del año de 2026. |
| Gastuen eta diru-sarreren aitorpena eginez. | Realizando una declaración de gastos e ingresos. |
| Diru-sarrerak: 378.450,00 euro. | Ingresos: 378.450,00 euros. |
| Gastuak: 378.450,00 euro. | Gastos: 378.450,00 euros. |
| Espedientea aztertu ondoren, Udalbatzak **HONAKO HAU ERABAKI DU AHO BATEZ:** | Visto el expediente el pleno del Ayuntamiento **POR UNANIMIDAD ACUERDA:** |
| 1.- 2026ko aurrekontua gauzatzeko oinarriak onartzea. | 1.- Aprobar las bases de ejecuccón del presupuesto de 2026. |
| 2.- 2026ko aurrekontua hasieran onestea. | 2.- Aprobar inicialmente el presupuesto del 2026. |
| 3.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarrita, nahi duenak espedientea aztertu eta erreklamazioak egin ahal izan ditzan. | 3.- Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de anuncios municipal, a fin de que quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones. |
| 4.- Ohartaraztea, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat joko dela. | 4.- Advertir que, si en el periodo de exposición pública no se formularan reclamaciones, el presupuesto se entenderá definitivamente aprobado. |
| **6.- 2026KO PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA** | **6.- APROBACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA DE 2026** |
| Plantillaren laburpena erantsi da: | Se adjunta el resumen de la plantilla: |
| **UDALEKO LANGILEAK** | **PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO** |
| A) Funtzionarioak | A) Personal Funcionario |
| - Lanpostua: Idazkaria. hutsik; maila: A; sartzeko modua: C.O.; Zenbakia: 1; Bateraezintasun-osagarria: %35. Lanpostu-osagarria: %15. Lanaldiaren | -Puesto de trabajo: Secretaria. Vacante; Nivel: A; Forma de ingreso: C.O.; Número: 1; Complemento |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| luzapen osagarria: %10 Lanaldia: %100.<br><br>Urroz, Oiz eta Donamariako udalekin elkartutako zerbitzua. Derrigorrezko euskara C1 hizkuntza-eskakizuna.<br><br>- Lanpostua: Ofizial administraria: Jardunean; Maila: C; Sartzeko modua: C.O.; Hitzarmen-osagarria: %12; Lanpostuko osagarria: %35; Lanaldia: %100.<br><br>Urroz, Oiz eta Donamariako udalekin elkartutako zerbitzua, derrigorrezko euskara C1 hizkuntza-eskakizuna.<br><br>(*) Hitzarmena Donamariako Udalarekin, bigarren ofizial administratibo bat partekatzeko.<br><br>A-1) Langileen izen-zerrenda<br><br>1.- Victoria Eulate Etxegia; Ofizial Administraria, Jardunean; C Maila; 6. Gradua; Antzinatasuna: 1990/07/05; Hitzarmen-osagarria: %12; Lanpostu-osagarria: %35.<br><br>**AHO BATEZ ERABAKI DA:**<br><br>1.- 2026ko plantilla organikoari hasierako onespena ematea, espedientean jasotako edukiarekin.<br><br>2.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun baliodunеko epean, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan iragarkia jarrita, nahi duenak espedientea aztertu eta erreklamazioak egin ditzan.<br><br>3.- Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantilla behin betiko onartutzat joko dela, eta haren laburpen bat | incompatibilidad: 35%. Complemento puesto de trabajo: 15%. Complemento prolongación de jornada: 10%. Jornada: 100%.<br><br>Servicio agrupado con los Ayuntamientos Urroz, Oiz y Donamaria. Conocimiento vascuence preceptivo, perfil lingüístico C1.<br><br>- Puesto de trabajo: Oficial Administrativa: Activo; Nivel: C; Forma de ingreso: C.O.; Complemento convenio: 12%; Complemento puesto trabajo: 35%, Jornada: 100%.<br><br>Servicio agrupado con los Ayuntamientos Urroz, Oiz y Donamaria. Conocimiento vascuence preceptivo, perfil lingüístico C1.<br><br>(*) Convenio con el Ayuntamiento de Donamaria para compartir una segunda Oficial Administrativa.<br><br>A-1) Relación Nominal del Personal<br><br>1.-María Victoria Eulate Etxegia; Oficial Administrativa; Activo; Nivel C; Grado 6; Antigüedad: 05/07/1990; Complemento de Convenio 12%; Complemento puesto trabajo: 35%.<br><br>**POR UNANIMIDAD SE ACUERDA:**<br><br>1.- Aprobar inicialmente la plantilla orgánica de 2026 con el contenido que obra en el expediente.<br><br>2.- Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios Municipal, a fin de que quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones.<br><br>3.- Advertir que, si en el periodo de exposición pública no se formularan reclamaciones, la Plantilla se entenderá definitivamente aprobada y se procederá |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| argitaratuko dela. | a publicar un resumen de la misma. |
| **7.- 2026KO ZERGA-TASAK** | **7.- TIPOS IMPOSITIVOS DE 2026** |
| 1.- 2026rako honako karga-mota hauek ezartzea: | 1.- Establecer para el año 2026, los siguientes tipos de gravámenes: |
| Zergak: | Impuestos: |
| 1. – Kontribuzioa: %0,25. | 1. –Contribución: 0,25%. |
| 2. – Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: %2. | 2. –Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras: 2%. |
| 3. – Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga, 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehieneko ehunekoak aplikatzea. Karga-tasa: %12. | 3. –Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, aplicar los porcentajes máximos establecidos en el artículo 175 de la Ley Foral 2/1995. Tipo de gravamen: 12%. |
| 4. – Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: 1. indizea. | 4. –Impuesto de actividades económicas: índice 1. |
| 2.- Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-taulan argitaratzea, dagozkion ondorioetarako. | 2.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal a los efectos oportunos. |
| **8.- 2026KO LAN EGUTEGIA ONARTZEA** | **8.- APROBACIÓN DEL CALENDARIO LABORAL DE 2026** |
| Idazkariak gaia azaldu du, Gizarte Ekonomiaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 390/2025 Ebazpena oinarri hartuta. Ebazpen horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean 2026. urterako lan-jaiegunen, modu ordainduan eta berreskuraezinean, egutegi ofiziala ezarri da | La secretaria expone el asunto y en base a la Resolución 390/2025, de 5 de junio, del director general de Economía Social y Trabajo por la que se establece el calendario oficial de fiestas laborales para el año 2026 con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra. |
| **ERABAKI DA:** | **SE ACUERDA:** |
| 1.- 2026ko lan-egutegia onartzea, honela: | 1.- Aprobar el calendario laboral de 2026 de la siguiente manera: |
| – Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna. | –1 de enero: Año Nuevo. |
| – Urtarrilak 6: Jaunaren Eguna. | –6 de enero: Epifanía del Señor. |
| – Martxoak 19: San Jose. | –19 de marzo: San José. |
| – Apirilak 2: Ostegun Santua. | –2 de abril: Jueves Santo. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| – Apirilak 3: Ostiral Santua.<br><br>– Apirilak 6: Pazko astelehena.<br><br>– Maiatzaren 1ean: Langileen eguna.<br><br>– Abuztuaren 3a: Herriko jaieguna.<br><br>– Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokundea.<br><br>– Urriak 12: Espainiako Jai Nazionala.<br><br>– Azaroak 2: Santu guztien egunaren biharamuna.<br><br>– Abenduak 3: Xabierko San Frantzisko.<br><br>– Abenduak 8: Andre Maria Sortzez Garbia.<br><br>– Abenduak 25: Eguberri eguna.<br><br>– Abenduak 29: Udaletxearen itxiera.<br><br>– Abenduak 30: Udaletxearen itxiera.<br><br>– Abenduak 31: Udaletxearen itxiera. | –3 de abril: Viernes Santo.<br><br>–6 de abril: Lunes de Pascua.<br><br>–1 de mayo: Fiesta del Trabajo.<br><br>–3 de agosto: Festivo local.<br><br>–15 de agosto: Asunción de la Virgen.<br><br>–12 de octubre: Fiesta Nacional de España.<br><br>–2 de noviembre: Día siguiente a la Festividad de todos los Santos.<br><br>–3 de diciembre: San Francisco Javier.<br><br>–8 de diciembre: Inmaculada Concepción.<br><br>–25 de diciembre: Natividad del Señor.<br><br>–29 de diciembre: Cierre del Ayuntamiento.<br><br>–30 de diciembre: Cierre del Ayuntamiento.<br><br>–31 de diciembre: Cierre del Ayuntamiento. |
| 2. – Eguneko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izango da.<br><br>Urteko zenbaketan 245 lanegun dira, eta horiei 27 opor-egun kendu behar zaizkie; azkenean, 218 lanegun geratzen dira benetako 1.592 lanordu egiteko.<br><br>Lanaldia astelehenetik ostiralera egingo da oro har, eta 08:00etatik 15:20ra bitarteko nahitaezko ordutegia ezarriko da. Gainerako denbora langileak aukeratuko du, malgutasunez.<br><br>Aipatutako lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko zerbitzuaren premiak direla-eta lanaldi bereziren bat ezarrita duten langileei, ez eta ordu-konpentsazioren bat dutenei ere (txandakako lana, gauekoa, eta abar); nolanahi ere, berariazko lan- | 2. –La duración de la jornada diaria será de 7 horas 20 minutos.<br><br>En el cómputo anual resultan 245 días laborables a los que hay que restar 27 días de vacaciones, quedando finalmente 218 días de trabajo para realizar 1.592 horas efectivas de trabajo.<br><br>La jornada de trabajo se realizará con carácter general de lunes a viernes, estableciéndose un horario obligado de 08:00-15:20 horas, quedando el tiempo restante a elección del empleado con carácter flexible.<br><br>La distribución de la jornada de trabajo señalada no será de aplicación a los empleados que, por necesidades del servicio, tengan establecida algún tipo de jornada especial ni a los afectados por alguna compensación horaria (trabajo a |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| egutegiaren arabera arautuko dira. | turnos, nocturno, etc.) que se regirán, en todo caso por su calendario laboral específico. |
| 3.– 2026an, epeak zenbatzeko, baliogabeak izango dira larunbat eta igande guztiak, bai eta lehenago udal-bulegoetan jaieguntzat jotako egunak ere. | 3. –Hacer constar que, en el año 2026, a efectos del cómputo de plazos, serán inhábiles todos los sábados y domingos, así como los días declarados festivos en las dependencias municipales anteriormente. |
| 4.– Jendaurreko ordutegia eta erregistro orokorra irekitzeko ordutegia ezartzea: | 4. –Establecer el horario de atención al público y de apertura del registro general queda establecido: |
| – Astelehen eta ostiralak, 08:00tik 11:15ra. | –Lunes y viernes de 08:00-11:15 horas. |
| 5. – 2027eko tokiko jaieguna abuztuaren 2a izango da, astelehena. | 5. –Definir el festivo local del año 2027 como 2 de agosto, lunes. |
| 6.– Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea. | 6. –Publicar el anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal. |
| **9.- ALKATETZAREN EBAZPENAK (2025-01-01tik 2025-12-15ra)** | **9.- RESOLUCIONES DE ALCALDÍA (del 01-01-2025 al 15-12-2025)** |
| Idazkariak jakinarazi ditu 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako alkatetza-ebazpenak. | La secretaria notifica las resoluciones de alcaldía emitidas desde el 1 de enero de 2025. |
| Jakintzat ematen dira. | Se dan por enterados. |
| **10.- LEURTZA NATURGUNEA S.L.-KO PREZIO PUBLIKOEN HASIERAKO ONARPENA** | **10.- APROBACIÓN INICIAL DE LOS PRECIOS PÚBLICOS DE LEURTZA NATURGUNEA S.L.** |
| 2023ko maiatzaren 23ko 107. zenbakidun Buletinaren bidez, behin betiko onartu zen Leurtzako jolas-eremu naturala ustiatzeko, kudeatzeko, mantentzeko, kontserbatzeko eta zaintzeko munizipalizazioa. Horretarako, erantzukizun mugatuko kapital-sozietate gisa eratutako tokiko merkataritza-sozietate publiko bat eratu zen, "Leurtza Naturgunea, S. L." izenekoa, eta Urrotz eta Beintza-Labaiengo Udalen partaidetza baino ez zuen, erdibana. | Mediante Boletín nº 107 de 23 de mayo de 2023 se aprobó definitivamente la municipalización para la explotación, gestión, mantenimiento, conservación y preservación del Área Natural Recreativa de Leurtza, mediante la constitución de una sociedad mercantil pública local con forma de sociedad de capital de responsabilidad limitada, bajo la denominación de "Leurtza Naturgunea, S. L.", exclusivamente participada los Ayuntamientos de Urrotz y de Beintza- |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025

FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| | Labaien, por mitades iguales. |
| **ERABAKI DA:** | **SE APRUEBA:** |
| 1.- 2026rako prezio publiko hauek onartzea: | 1.- Aprobar los siguientes precios públicos para 2026: |
| –Eremura sartzea: | –Acceso al Área: |
| -Autoak: 3 euro | -Coches: 3 euros |
| -Motozikletak: 2 euro | -Motocicletas: 2 euros |
| -Mikrobusak: 10 euro | -Microbuses: 10 euros |
| -Autobusak: 20 euro | -Autobuses: 20 euros |
| –Antolatutako jarduerak: | –Actividades organizadas: |
| Tasa finko bat eta tasa aldakor bat honela integratzearen emaitza da: | Resulta de integrar una tasa fija y otra variable de la siguiente forma: |
| a) Tasa finkoa: 150 euro urteko. | a) Tasa fija: 150 euros anuales |
| b) Tasa aldakorra: euro 1 partze-hartzaile bakoitzeko. | b) Tasa variable: 1 euro por participante |
| – GKEek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteek antolatutako jarduerak: | –Actividades organizadas por ONGs o asociaciones sin ánimo de lucro: |
| a) Urtean behin edo bitan bakarrik egiten badira bisitak: | a) En caso de realizar solamente una o dos visitas al año : |
| a.1) Ibilgailuaren tasa: | a.1) Tasa del vehículo: |
| - Autoak: 3 euro | -Coches: 3 euros |
| - Motozikletak: 2 euro | -Motocicletas: 2 euros |
| - Mikrobusak: 10 euro | -Microbuses: 10 euros |
| - Autobusak: 20 euro | -Autobuses: 20 euros |
| a.2) Tasa aldakorra: euro 1 parte-hartzaile bakoitzeko | a.2) Tasa variable: 1 euro por participante |
| b) Urtean bi bisita baino gehiago eginez gero: | b) En caso de realizar más de dos visitas al año: |
| b.1) Tasa finkoa: 150 euro urteko. | b.1) Tasa fija: 150 euros anuales |
| b.2) Tasa aldakorra: euro 1 parte-hartzaile bakoitzeko | b.2) Tasa variable: 1 euro por participante |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| 2.- Espedientea idazkaritzan jarriko da, iragarki hau argitaratu eta hogeita hamar egun balioduneko epean. Epe horretan, auzokoek edo legezko interesdunek kontsultatu ahal izango dute, eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izango dituzte. | 2.- El expediente se expondrá en Secretaría durante treinta días hábiles tras la publicación de este anuncio. Durante ese plazo, vecinos/as o personas interesadas legítimas podrán consultarlo y formular reclamaciones, reparos u observaciones. |
| **11.- LEURTZA NATURGUNEA S.L.RI UDAL EKARPENA** | **11.- APORTACIÓN MUNICIPAL A LEURTZA NATURGUNEA S.L.** |
| Leurtza Naturgunea SL arduratzen da Leurtzako Aisialdirako Eremu Naturala ustiatzeaz, mantentzeaz, kontserbatzeaz eta zaintzeaz. | Leurtza Naturgunea S.L. es la encargada de la gtestión, explotación, mantenimiento, conservación y preservación del Área Natural Recreativa de Leurtza. |
| **ERABAKI DA:** | **SE ACUERDA:** |
| 1.- Udalaren 00,00 euroko ekarpena onartzea sozietatearen kapital sozialari, oso-osorik ordaindutako kapital soziala osatzen duten partaidetzen erdiari dagokiona. | 1.- Aprobar la aportación municipal de 00,00 euros al Capital Social de la sociedad, correspondiente a la mitad de las participaciones sociales que conformar el Capital Social íntegramente desembolsado. |
| **12.- UDAL PLANA IDAZTEA: ALEGAZIOEN TXOSTENA ONARTZEA ETA INTERESDUNEI JAKINARAZTEA** | **12.- REDACCIÓN DEL PLAN MUNICIPAL, APROBACIÓN DEL INFORME DE ALEGACIONES Y COMUNICACIÓN A INTERESADOS** |
| Udal Plana idazteko espedientea eta jendaurrean jartzeko epean aurkeztutako alegazioak aztertu dira. | Visto el expediente de la redacción del Plan Municipal y las alegaciones presentadas en el periodo de exposición pública. |
| Chocarro & Urmeneta Arquitectos s.l.p-k egindako alegazio-txostena ikusi da. | Visto el informe de alegaciones redactado por Chocarro & Urmeneta Arquitectos s.l.p. |
| **ERABAKI DA:** | **SE ACUERDA:** |
| 1.- Alegazioen txostena onartzea. | 1.- Aprobar el informe de alegaciones. |
| 2.- Erabakia interesdunei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten. | 2.- Comunicar el acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| **13.- UDAL PLANAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA** | **13.- APROBACIÓN PROVISIONAL DEL PLAN MUNICIPAL** |
| Chocarro & Urmeneta Arquitectos s.l.p enpresak aurkeztutako dokumentuak aztertu dira, eta planaren idazketaren jarraipen-batzordeko Udaleko kideek oniritzia eman dutela ikusita. | Vista la documentación presentada por Chocarro & Urmeneta Arquitectos s.l.p y dado el visto bueno por los miembros del Ayuntamiento de la comisión de seguimiento de la redacción del plan. |
| **ERABAKI DA:** | **SE ACUERDA:** |
| 1.- Idatzitako Udal Plana behin-behinean onartzea. | 1.- Aprobar provisionalmente el Plan Municipal redactado. |
| 2.- Espainiako Gobernuko Telekomunikazio Ministerioaren txostena eskatzea. | 2.- Solicitar el informe del Ministerio de Telecomunicaciones del Gobierno de España. |
| 3.- Espediente osoa lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen sailari bidaltzea, behin betiko onar dezan. | 3.- Remitir el expediente completo al Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo para su aprobación definitiva. |
| **14. LAGUNTZA-ESKAERAK** | **14.-SOLICITUDES DE APOYO** |
| Intxorta Asti Elkarteak 2025eko azaroaren 20an bidalitako mezu elektronikoa ikusi da. | Visto el correo electrónico enviado por Intxorta Asti Elkartea el 20 de noviembre de 2025. |
| **ERABAKI DA:** | **SE ACUERDA:** |
| 1.- Eskola eskatutako egunetan erabili ahal izango dutela jakinaraztea. | 1.- Notificar que podrán utilizar el colegio en las fechas solicitadas. |
| 2.- Jakinaraztea espazio publikoan jarduerak egiteko udal-baimena eskatu beharko dela, ordenantzan ezarritakoaren arabera. | 2.- Notificar que para realizar actividades en el espacio público, deberá solicitarse la autorización municipal en base a lo establecido en la ordenanza. |
| 3.- Erabakia interesdunei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten. | 3.- Notificar el acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos. |
| **15.- ESPEDIENTEEN EGOERA 2025KO ABENDUAN** | **15.- ESTADO DE LOS EXPEDIENTES A FECHA DE DICIEMBRE DE 2025** |
| Idazkariak egindako zerrenda azaldu du. | La secretaria explica el listado elaborado. |
| Jakinantzat ematen dira. | Se dan por enterados. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| 16.- MOZIOAK | 16.- MOCIONES |
|---|---|
| Landa Etxebizitza Publikoa Plataforma – Plataforma Pública Ruralek aurkeztutako mozioa ikusita: | Vista la moción presentada por la Plataforma Vivienda Pública Rural – Landa Etxebizitza Plataforma: |
| 2018. urtetik aurrera, Nafarroako Gobernua hainbat udalekin lankidetza-hitzarmenak sinatzen hasi zen, alokairuko etxebizitza publikoak eraiki edo birgaitzeko. Lurralde osorako beharrezkoa den etxebizitza-politika bat, zoritxarrez udalerri, bailara edo eskualde bakoitzak dituen ezaugarri eta behar espezifikoak kontuan hartzen ez dituena. Legedia ez da egokitu klase politikoak ezarritako erronkari aurre egiteko. | A partir del año 2018, Gobierno de Navarra comienza a firmar convenios de colaboración con diferentes ayuntamientos para construir o rehabilitar vivienda pública en régimen de alquiler. Una política de vivienda necesaria para el conjunto del territorio que, por desgracia, no repara en las características y necesidades específicas que presenta cada municipio, valle o comarca. La legislación no ha sido acondicionada para hacer frente al reto que marcó la clase política. |
| Horregatik, Iruñerritik kanpo alokairuko lehen etxebizitza publikoak esleitu zirenetik hiru urte igaro ondotik, errentari askok oztopo eta arazo ugari aurkitu dituzte etxebizitza horien esleipenari eta kudeaketari dagokienez. Egoera txarrean dauden etxebizitzak ematetik, etxebizitza sozietate publikoak salaketa horien aurrean duen axolagabekeriatik, askotan merkatu librearen gainetik dauden alokairu batzuk kobratzeraino. Iruñerrian edo despopulatzeko arrisku handia duen udalerri batean 85m²-ko BOE bat alokatzearen benetako diferentzia objektiboa 34 eurokoa da. | Por este motivo, tras tres años desde que se adjudicaron las primeras viviendas públicas en régimen de alquiler fuera de la comarca de Pamplona, muchas personas arrendatarias han encontrado un sinfín de obstáculos y problemas relacionados con la adjudicación y gestión de estas viviendas. Desde la entrega de viviendas en mal estado, la indiferencia de la sociedad pública de vivienda ante estas denuncias, hasta el cobro de unos alquileres que en muchos casos están por encima del mercado libre. La diferencia real y objetiva de alquilar una VPO de 85m² en la comarca de Pamplona o en un municipio con riesgo extremo de despoblación es de 34 euros. |
| 2024ko urrian, Nafarroako Arartekoak, Q24/847 espedientean, Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Departamentuari iradoki zion legea alda zezala, babestutako alokairuaren prezioak Nafarroako eremu batzuen eta besteen artean dauden «merkatuen errealitate desberdinen arabera» egokitzeko. | En octubre de 2024 el Defensor del Pueblo de Navarra, en el expediente Q24/847, sugiere al Departamento de Vivienda del Gobierno de Navarra que impulse una modificación de la ley, para adecuar los precios del alquiler protegido «en función de las diferentes realidades de mercados» que existen entre unas y otras zonas de Navarra. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| Errealitate horren aurrean, Plataforma Vivienda Pública Rural – Landa Etxebizitza Publikoa Plataforma hainbat topaketa egiten hasi zen 2024. urtearen hasieran Nasuvinsarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta alderdi politikoekin, azaldutako arazoez sentsibilizatzeko eta beharrezko aldaketak aldarrikatzeko. 2024ko ekainean Nafarroako Parlamentuan lan-saio bat egin ondotik, talde parlamentario guztiek hitz egiten jarraitzeko eta dozenaka familiaren baldintzak hobetzeko lan egiteko konpromisoa hartu dute. Urtebete geroago, landa-eremuko etxebizitza publikoak alokatzen dituzten familiek egoera berean jarraitzen dute, eta arazoaren norabidea lehengoratzeko inolako zantzurik gabe. | Ante esta realidad, Plataforma Vivienda Pública Rural – Landa Etxebizitza Publikoa Plataforma comienza a realizar a principios del año 2024 una serie de encuentros con Nasuvinsa, Gobierno de Navarra y partidos políticos con la intención de sensibilizar a los mismos sobre los problemas expuestos y reivindicar cambios necesarios. Tras una sesión de trabajo en el Parlamento de Navarra en junio de 2024, todos los grupos parlamentarios se comprometen a seguir hablando y trabajar en la mejora de las condiciones de decenas de familias. Un año después, las familias arrendatarias de vivienda pública rural siguen en la misma situación y sin ningún indicio de revertir la dirección del problema. |
| 2025eko irailean, Nafarroako Gobernuak EtxeOn plana aurkeztu zuen, lurraldearen luzezabalean etxebizitza kopuru izugarria eraikitzeko ekimena. «Sakoneko aldaketa bat Nafarroan etxebizitza publikoa planifikatu, eraiki eta kudeatzeko dugun moduan» diote planaren aitzindariek. Ez da ulertzen sakoneko aldaketa batek errentarien beharrak eta plan horiek gauzatu diren udalerri eta udalenak alde batera uztea. Gainera, urte hauetan zehar, Nasuvinsak utzi egin dio Nafarroako hainbat udalekin sinatutako hitzarmen kopuru oso esanguratsua garatzeari. | En septiembre del año 2025, Gobierno de Navarra presenta el plan EtxeOn, iniciativa para construir una ingente cantidad de viviendas a lo largo y ancho del territorio. «Un cambio de fondo en la manera en que planificamos, construimos y gestionamos la vivienda pública en Navarra» dicen los precursores del plan. No se entiende que un cambio de fondo obvie las necesidades de las personas arrendatarias, así como la de los municipios y ayuntamientos donde se han llevado a cabo estos planes. Además, a lo largo de estos años, Nasuvinsa ha dejado de desarrollar una cantidad muy significante de convenios firmados con distintos ayuntamientos de Navarra. |
| Horrela, premiazkoa eta beharrezkoa da neurri espezifikoak bultzatzea, etxebizitza publiko eskuragarria eta kalitatezkoa bermatzeko, ingurunearekin errotzen dena eta haren errealitate zehatzari erreferentzia egiten diona. Iruñerriaren zerbitzu edo erraztasun berdinak ez dituen hiri edo herri batetik, despopulazio arrisku izugarria duen bailara edo | De esta manera, es urgente y necesario impulsar medidas específicas para garantizar una vivienda pública asequible y de calidad que enraíce con el entorno y haga referencia a su realidad concreta. Desde una ciudad o pueblo que no tenga los mismos servicios o facilidades que la comarca de Pamplona, hasta el valle o comarca que sufra un riesgo extremo de |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza -Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| eskualderaino. | despoblación. |
| Horiek horrela, **ONARTZEN DA:** | Por lo anteriormente expuesto, **SE APRUEBA:** |
| 1.- Udal honen osoko bilkurak Nasuvinsari (Navarra de Suelo y Vivienda S.A.) eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die Nafarroako BOEen alokairuen prezioak egokitu ditzatela lurraldean zehar dauden errealitate ezberdinetara, biztanleria, kokapen geografikoa, despopulazio arriskua, zerbitzuak edo udalerri bakoitzaren egoera espezifikoa direla eta. | 1- El pleno de este ayuntamiento insta a Nasuvinsa (Navarra de Suelo y Vivienda S.A.) y a Gobierno de Navarra a adecuar los precios de los alquileres de VPO de Navarra a las distintas realidades que existen a lo largo del territorio debido a su población, situación geográfica, riesgo de despoblación, servicios o estado específico de cada municipio. |
| 2.- Udal honen osoko bilkurak Nasuvinsari (Navarra de Suelo y Vivienda S.A.) eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die 2015-2019 legealdian sortutako Etxebizitza Babestuen Errentamendurako Jardunbide Egokien Kodea egokitu, hobetu eta bete dezatela. Lehentasuna izan behar du Nafarroako etxebizitza babestuetako maizterren ongizateak eta zaintzak. | 2.- El pleno de este ayuntamiento insta a Nasuvinsa (Navarra de Suelo y Vivienda S.A.) y a Gobierno de Navarra a adecuar, mejorar y cumplir el Código de Buenas Prácticas para Arrendamiento de Vivienda Protegida creado en la legislatura 2015-2019. El bienestar y cuidado de las personas inquilinas en vivienda protegida de Navarra debe ser una prioridad. |
| 3.- Udal honen osoko bilkurak Nasuvinsari (Navarra de Suelo y Vivienda S.A.) eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die udalekin, elkarteekin eta, oro har, gizarte zibilarekin adostu ditzatela udalerrien idiosinkrasian eragina duten etxebizitza-politikak. | 3.- El pleno de este ayuntamiento insta a Nasuvinsa (Navarra de Suelo y Vivienda S.A.) y a Gobierno de Navarra a consensuar y acordar con los consistorios, asociaciones y sociedad civil en general las políticas de vivienda que repercutan y afecten a la propia idiosincrasia de los municipios. |
| **17.- ESKAERAK ETA GALDERAK** | **17.-RUEGOS Y PREGUNTAS** |
| I.A.E.I.k azaldu duenez, bere familiak aspalditik jasaten du indarkeria (jaietan, manifestazioak, etab.), instrumentalizatuak diren adingabeen aldetik. | I.A.E.I. explica que su familia lleva sufriendo violencia desde hace tiempo (en fiestas, manifestaciones, etc.) por parte de menores que están siendo intrumentalizados. |
| Jesus Juan Vertiz zinegotziak galdetu du zer indarkeria-kasu egon diren, eta bizilagunak adibide batzuk jarri ditu. | El concejal Jesus Juan Vertiz pregunta qué casos de violencia ha habido y el vecino pone unos ejemplos. |

FIRMADO POR
Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
23/12/2025
FIRMADO POR
El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
08/01/2026

| | |
|---|---|
| Hau eskatzen du:<br><br>a) Poliziarekin edo guardia zibilarekin koordinatutako sistema bat antolatzea kasu horietarako.<br><br>b) Udala jabetu dadila gertakarietan polizia iritsi baino lehen agertu behar dela.<br><br>c) Udala salaketa penaletan pertsonatu daiteke, eta kasu horietarako dauden adiskidetze-tresnak erabili.<br><br>d) Barkamena eskatu du publikoki atzo gertatutakoagatik, eta gertatutakoaz lotsatuta daudela jakinarazi du. Egoera horretara nola iritsi den azaltzen du.<br><br>Jesus Juan Vertiz zinegotziak esan du orain arte ez dela horrelako arazorik egon eta gauzak urrunegi iritsi direla.<br><br>Osoko bilkurak erabaki du eskaerak baloratu behar dituztela erantzun bat eman aurretik.<br><br>**18.- UDAL INFORMAZIOA**<br><br>Idazkariak jakinarazi du ez dela inor etorriko kontratazio-zerrendetatik, eta esan du azterketa bat deitu beharko dela idazkari kontu-hartzaile berria kontratatzeko. | Solicita que:<br><br>a) Se organice un sistema coordinado con la policia o la guardia civil para estos casos.<br><br>b) El Ayuntamiento tome conciencia de que hay que personarse en los hechos antes de que llegue la policia.<br><br>c) El Ayuntamiento puede personarse en las denuncias penales y utilizar las herramientas de conciliación que existen para estos casos.<br><br>d) Pide perdón públicamente por lo ocurrido ayer y notifica que están avergonzados de lo ocurrido. Viene a explicar cómo se ha llegado a esta situación.<br><br>El concejal Jesus Juan Vertiz comenta que hasta ahora no ha habido problemas de este tipo y que las cosas han llegado demasiado lejos.<br><br>El pleno acuerda que deben valorar las solicitudes antes de darle una respuesta.<br><br>**18.- INFORMACIÓN MUNICIPAL**<br><br>La secretaria notifica que no va a venir nadie de las listas de contratación y comenta que deberá convocarse un examen para la contratación del/la nueva secretario/a-interventor/a. |
| Aztergai gehiagorik egon ez denez, alkateak bilera amaitutzat eman du 10:00etan, eta nik, idazkariak, ziurtatu egiten dut.<br><br>Beintza-Labaien, sinadura digitalaren datan<br><br>**ALKATEA/EL ALCALDE**<br><br>Jon Telletxea Juanenea | No habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión a las 10:00 horas, lo que yo, la Secretaria, certifico.<br><br>En Beintza-Labaien, en la fecha de la firma digital<br><br>**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**<br><br>Leire Iragorri Litago |